

## ZEIN DA GIZONEN PAPERA GREBA FEMINISTAN?

Emakumeok gaude deituta grebara, baina martxoak 8an ez dugu kapitalaren erreproduktzioarako jarduerarik nahi. Beraz, gizona bazara eta greba babestu nahi baduzu, soldatapeko lana utzi norberaren eginkizunetarako egunak erabiliaz eta negozio propioa baduzu ateak itxi.

Emakume, bollera eta transak greban gaudenez gizonak etxeko eta zaintza lanez arduratu behar dira gizonak. Ondoren azalduko dira etxeko eta zaintza lanez arduratzeko moduak. **Gizona bazara zaintza lanez arduratzea da lehentasuna, eta ez mobilizazioetan parte hartzea.**

Etxeko eta zaintza lanez arduratzeaz eskatzen dizugu, baina mobilizazioetan parte hartzen baduzu, gogoratu emakumeon\* protagonismoa eta bisibilizazioa ezinbestekoak direla. Gizon moduan, hori ahalbidetzea dagokizu, jar zaitez atzeko aldean, agindu edo azalpenik eman gabe.

Hemen doa, martxoaren 8an etxeko eta zaintza lanez arduratzeko eta greba bultzatzeko gizonentzako gida:

- Aita bazara zure **seme-alabez arduratu** eta eztabaida zein ikasle greba lagundu (guraso elkarteetan, eskolan...).
- Laguna bazara, zure **lagunen umeak zaindu** ditzakezu.
- Enpresako nagusia bazara, **enpresa itxi** eta beharrezkoa bada zaintza kolektiborako espazioa irekitzea ahalbidetu.
- Ikaslea edota irakaslea bazara, eskolara joango ez diren emakume\* ikaskideak eta **ikasleen lanuztea babestu** eta eskolak zaintza komunitariorako espazio bilakatu.
- Zure familian, elkarbizitza taldean edo inguru afektiboan zaintza behar duenik badago, **has zaitez egun horretatik aurrera ohituraz emakumeok\* betetzen dugun lan horretaz arduratzen.**
- **Zaintza komunitariorako espazioak autonomoki sortu** (lantegietan, eskoletan, gaztetxeetan, e.a.). Gizonak ardura hartu behar dute, helburua ez da emakumeen\* laguntzaile izatea.
- Zure inguruko norbait zaintzeko soldatapeko emakume bat badago (haur, adindun, bizilagun e.a.) **zure burua eskaini egun horretan lan egiteko.**
- Emakume\* batekin harreman sexu-afektiborik baduzu, martxoaren 8an kalean egoteko behar duen **laguntza guztia emaitzatu.**
- **Zabaldu mezua zure lagun eta talde guztien artean.** Militantea bazara, eraman zure eremu politikora.
- **Ez kontsumitu.** Batu zaitez kontsumo grebara.
- Greba egunaren aurretik eta ondoren **beste gizonezkoekin bildu zaitezke,** maskulinitateen inguruan elkarrekin hausnartzeko, lan pertsonala eta kolektiboa egiteko, zuen pribilegioez kontzientzia hartzeko eta menderakuntzarik gabeko jendartearen lortzeko bidean pausoak emateko.

**GREBA FEMINISTA BABESTEN ARI BAZARA,  
ZURE LEKUA ETXKO ETA ZAINZA LANETAN DAGO!**